



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezoko Unibertsitateko Udalean lehiaketa-oposizio ireki bidez arkitekto tekniko plaza bat betetzeko oinarriak.

Lehena. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da Lezoko Unibertsitateko Udaleko funtzionario plantillan hutsik dagoen arkitekto tekniko plaza bat betetzea lehiaketa-oposizio irekiaren bidez. Lanpostua A Taldean, A2 Azpitaldean sartuta dago eta Administrazio Bereziko Eskalakoa, Azpieskala Teknikoa, Erdi Mailako Klasekoa da.

Oposizioaren proba guztiak gainditu eta funtzionario izendatu ez dituzten izangai guztiak lan-poltsa batean sartuko dira, lortu duten puntuazioaren arabera hurrenkerarekin, eta sail horretan sortzen diren aldiak beharrezko erabiliko du Udalak.

Bigarrena: Lanpostuaren ezaugarriak.

Lanpostu hori Lezoko Unibertsitateko Udalaren plantilla organikoan sartuko da eta ez du eskubiderik sorrarazten zerbitzuak lanpostu jakin batean bakarrik emateko.

Dagokigun plaza horrek horrek derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna du ezarrita, eta derrigortasun data iraungitua du.

Udalaren ordainketa taularen 17. mailari eta Lanpostu Osagarriaren 23. mailari dagokion ordainsaria jasoko du.

Lanpostua lanaldiaren %50ekoa izango da. Lanaldia Udalak urtero zehaztuko duena izango da, Zerbitzuak dituen izaera eta beharrezko kontuan hartuta, beti ere.

Hirugarrena: Eginkizunak.

Lanpostuan, hauek egin behar dira: udal obrak eta zerbitzuak zuzendu; proiektuak eta obra txikien, eta jardueren txostenak prestatu; eta arkitekto teknikoaren espezialitateko aholkularitza eskaini. Horretaz gain, arloari esleitutako zerbitzuak egoki gauzatzeko direla bermatu behar da, eta eraginkortasunez koordinatu giza baliabideak eta baliabide materialak.

Aldian-aldean ezarritako eginkizunak bete behar dira lanpostuan eta bereziki, hauek:

- Lanbidearen esparruan, obra txikien lizentziak, irekiera-lizentziak, balorazioak, aurrekontuak, ziurtagiriak, likidazioak, etabar emateari buruzko txosten teknikoak prestatu.
- Jarduera irekitzeko espedienteen txostenak prestatu, dagokion jarduera arautzen duen legeria aplikatuta.
- Aurreikusita dauden espedientetan hondakinen kudeaketaren inguruko txostenak prestatu.
- Lanbidearen esparruan gainerako teknikariek batera aritu udal ordenantzak idazten eta aldatzen, eta obrak lizitzatzeko egin beharrezko prozedura eta oinarri legetarako baldintza teknikoaren eta ekonomiko eta administratiboaren agiriak prestatzen.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak eraikitzeko, berritzeko, konpontzeko edo zaintzeko diren udal proiektuak prestatu, arkitekto teknikoaren espezialitateari lotutakoak (aurrekontuak, segurtasun eta osasuna, kalitate kontrola, hondakinen kudeaketa etabar).
- Obrak, matxurak eta lizentziak ikuskatu eta kontrolatu, eta haien segimendua egin, egiaztapen tekniko bidez eginda.
- Obrak zuzendu, neurketak eta ziurtapenak eginez eta ziurtatuz.
- Segurtasuna eta osasun koordinazioa egin Udalak sustatutako lanetan.
- Erosketak egiaztatuz, Obra eta Zerbitzuen Arloak egindako fakturak sinatuta eta ontzat emanda.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Hala eskatzen zaionean, udal batzordeetara joan, gaiak aztertzeko, informazioa jasotzeko edo kontsultak egiteko.
- Diru-laguntzak eskatzeko eta justifikatzeko eta haien segimendua egiteko dokumentazioa prestatu.
- Gorabeheren berri jaso eta haien kudeatu. Zerbitzuei lan-programak esleitu, eta haien bilakaera eta emaitzak kontrolatu.
- Jendeari arkitekto teknikoaren eskumenen berri eman.
- Jendearekin, gremioekin eta udaleko eta udalaz gaindiko erakundeekin harremanetan egon arloko gaien eta emandako eginkizunen inguruan.
- Beste udal arduradun batzuekin harremanetan egon eta bilerak egin, udal zerbitzuak koordinatzeko eta haien inguruko hobekuntza-proiektuak gauzatzeko.
- Zerbitzuen arduradunekin harremanetan egon eta bilerak egin, koordinatuta egoteko, informazioa trukatzeko eta argibideak emateko.
- Mantentze-planak ezarri, zerbitzuez arduratzen diren teknikari laguntzaileekin elkarlanean, eta, plan horietan, hauek zehaztu: kalitate/kostu adierazleak, jardunen egutegia, profila eta beharrezko langileak, eta beharrezko tresnak.
- Hainbat zerbitzuri esleitutako aldi baterako langileak eta langile finkoak zuzendu, koordinatu eta kontrolatu (elektrizitatea, lorezaintza, zerbitzu orokorrak, etabar), mantentze-planen arabera banatu lanak, eta lan horiek eraginkortasunez egiten direla eta produktiboak direla bermatu.
- Zerbitzu, mantentze-lan eta azpiegituren arloan esleitzen diren kontratuen zuzendaritza tekniko, segimendua eta txostena egin (lorenzaintza, hiri-hondakinen bilketa eta bide-garbitzeta, udal eraikinen garbitzeta, etabar), kontratuko baldintzak betetzen direla bermatu, eta, funtsean, ematen diren zerbitzuak betetzen direla eta haien kalitate-kostu erlazioari eusten zaiola kontrolatu.
- Erosketak kudeatu; hain zuzen ere, Obra eta Zerbitzuen arloaren beharrak eta kontsumo-mailak zehaztu, dagozkion arduradunek lagunduta.
- Obra eta Zerbitzuen arloari atxikitako langileen lanean segurtasun- eta garbitasun-neurriak ezartzen eta zuzen betetzen direla zaindu.
- Zerbitzuen arlorako aurrekontu-aurreproiektua prestatzen lagundu eta urteko gastuaren segimendua egin, onartzen denean.
- Jendeari arreta eman.
- Arloko zerbitzu ezberdinen lan-partea kontrolatu.
- Era guztietako obren zuinketa-aktak formalizatu, eta neurketa lineala gauzatu eta kontuhartzaitzara igorri.
- Larrialdietako udal plana egiten lagundu: irisgarritasuna, soinua, etabar.
- Zerbitzuen arloari esleitutako ondasunen inbentarioa prestatzeaz arduratu; horretarako, arduradunei ondasunen zerrenda eskatu aldizka, informazioa bildu, eta informazio hori ondasunen udal inbentarioa kudeatzeaz arduratzen den pertsonari bidali.
- Obra eta Zerbitzuen Arloko aldi baterako langileak eta langile finkoak hautatzeko prozesuetan parte hartu.
- Nola udal langileek hala azpikontratutakoek egindako udal obretan gremioak koordinatu.
- Titulartasun edo erabilera publikoko lurzoruari buruzko txostenak eta planoak prestatu, informatu eta lurzoruaren okupazioaren segimendua egin.
- Eraikin eta azpiegitura publikoak mantentzeko lanen zuzendaritza fakultatiboa egin eta horretaz arduratu.
- Hilerriaren okupazioa kudeatu eta horretarako planoak prestatu.
- Eragindako jarduera eta etxebizitzetan soinu-neurketak egin eta kasuan kasu hartu beharreko neurrien berri eman.
- Ardurapeko zerbitzuen aholkularitza teknikoaz eta zuzendaritzaz arduratu.
- Lanpostuaren kategoria profesionala kontuan hartuta, agintzen zaion beste edozein eginkizun bete.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Laugarrena: Izangaiak bete beharreko baldintzak.

Onartua izateko eta, hala badagokio, lehiaketa-oposizioan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

a) Europar Batasuneko kide diren estatueta baten herritartasuna izatea, edo bestela, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estutuak berretsita nazioarteko Itunei jarraiki, langileen joan-etorri askea ezarrita duen estaturen bateko kide izatea.

Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko gainerako estatueta kideen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, baldin eta legez banatuta ez badaude. Horien oinordekoek, eta ezkontideen oinordekoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta legez banatuta ez badaude eta hogeita bat urte baino gazteagoak baldin badira, edo bestela, nagusiagoak izanik, haien kontura bizi baldin badira.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

c) Arkitekto tekniko titulua izatea edota hori lortzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

d) B motako gida baimenaren jabe izatea.

e) Plaza betetzeko eskatzen den 4. hizkuntza eskakizunaren jabe dela egiaztatzea. Bai agiri bidez bai oposizio fasean horretarako jarriko diren probak gaindituz egiaztatu ahal izango da baldintza hori.

f) Lanpostuaren funtzioak normaltasunez betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori proposatutako izangaiak egiaztatu behar du, egin beharreko azterketa medikoaren bidez, Lezoko Udalak egoki deritzon forma eta moduan praktiketako funtzionario izendatu aurretik.

g) Zigor espediente bidez, Estatuko, Autonomi Erkidegoetako edo Toki Erakundeetako zerbitzutik baztertuta ez egotea; ezta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta egotea ere.

h) Inolako ezgaitasun eta bateraezintasunezko lege kausaren batean ez egotea, Herri Administrazioen zerbitzupean dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzerako bete behar dira baldintza horiek guztiak, eta bere horretan gorde behar dira Lezoko Unibertsitateko Udaleko karrerako funtzionario plaza jabetzan hartzeko garaian; e) eta f) ataletan eskatutakoa salbu.

Bosgarrena: Eskabideak aurkeztea.

Aukeratze prozesuan parte hartzeko eskabideak bat etorriko dira Oinarri hauei II. Eranskin gisa erantsen zaien eredu ofizial eta normalizatuarekin. Eskabideak Lezoko Unibertsitateko Udalaren Erregistro Nagusian edo udalaren web orrian (www.lezo.eus) eskuratu ahal izango dira, 8:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Oposizio-lehiaketan onartua izateko eskabideak Lezoko Unibertsitateko Udaleko alkate-lehendakariaren izenean bidali behar dira, eta ondorengo baldintzak bete behar dituzte baztertuak ez izateko:

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, deialdiaren 4. oinarrian eskatzen diren



Lezoko Unibertsitateko Udala

baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek.

b) Horrez gain, ondoko agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo Europar Batasuneko beste estatu kideetako izangairik bada, nortasuna edo nazionalitatea egiaztatzen duen agiria.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia (kopia konpultsatua).
- Eskaerak aurkezteko epe barruan 4. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea lortuta izanez gero, hori egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (kopia konpultsatua).
- Gida baimenaren fotokopia.

c) Halaber, lehiaketako fasean baloratu behar diren merezimenduen inguruko datuak eskarian adierazi beharko dira. Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak.

d) Eskarian alegatutako merituak ondoren egiaztatu beharko dira epaimahai kalifikatzaileak ezarritako era eta epetan.

Lan esperientzia egiaztatzeko, enpresaren edo dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan, kontratuaren iraupena eta epealdia, dedikazioaren portzentajea eta egindako zereginak adieraziko dira. Lan esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioen egiaztagiria (Gizarte Segurantzak egindako lan bizitzari buruzko ziurtagiria) ere aurkeztu beharko da.

Eskabidean Lezoko Unibertsitateko Udalean lan egin duela adierazi badu, ez da beharrezkoa izango lan eskarmentua egiaztatzea, eta espedienteko datuen arabera baloratuko da esperientzia hori.

Heziketa osagarria egiaztatzeko aurkezten diren agiritan, haren iraupena (ordu kopurua) zehaztu beharko da.

e) Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak, behar bezala beteta, Lezoko Unibertsitateko Udaleko Informazio Bulegoan aurkeztu beharko dira, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta, gehienez ere, hoguei (20) egun naturaleko epean, deialdiari buruzko iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Halaber, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan adierazitako edozein modutan aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Horrelakoetan, dagokion funtzionarioak jarri beharko die eguna eta zigilua eskabideak aurkezteko epearen barruan; horrela bakarrik ulertuko da eskabideei Lezoko Unibertsitateko Udaleko Erregistro Nagusian sarrera eman zaiela Erregistroetan edo Posta Bulegoetan entregatu ziren egunean.

Seigarrena: Norberaren datuak.

Izangaiei datuak fitxategi batean sartuko dira, aukeratze prozesua kudeatu ahal izateko. Fitxategi hori Udalak kudeatuko du. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.

Datu pertsonalak Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera erabiliko dira, eta baita datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudiaren arabera ere, hots, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudiaren arabera.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Identifikazio datuak eta hizkuntza eskakizunei edo haien baliokideei buruzkoak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) emango zaizkio, alegatutako egiaztapen datuak hizkuntza eskakizun egiaztatuen erregistroan agertzen diren ala ez ikusteko eta aukeratze prozesuaren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ariketa behar bezala prestatu eta egiteko.

Zazpigarrena: Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian (www.lezo.eus) argitaratuko du. Era berean, ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko dira.

Aipatutako zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek 10 laneguneko epea izango dute baztertzeko arrazoi izan diren hutsuneak edo okerrak zuzentzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontaktzen hasita.

Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean, eta jendaurrean jarriko da aurrekoaren modu berean.

Behin behineko zerrendarekin batera, oposizio fasearen lehen azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia emango da argitara. Epaimahaia osatuko duten kideen izendapena ere ebazpen berean emango da argitara. Ondorengo ariketak Epaimahai Kalifikatzaileak jakinaraziko ditu, Udaletxeko iragarki taulan erakutsiaz edo ezagutzera emateko egokiago iruditzen zaion moduan.

Epaimahai Kalifikatzaileak Lezoko Unibertsitateko Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko ditu jakinarazpenak eta oharrak eta baita web orrian (www.lezo.eus) ere.

Zortzigarrena: Epaimahai Kalifikatzailea.

Azterketako probak kalifikatuko dituen Epaimahaia epaimahaiburuak, idazkariak eta epaimahaikideek osatuko dute. Horien guztien izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian (www.lezo.eus) argitaratuko da.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) izendatutako teknikari batek ere hartuko du parte Epaimahaian, deialdian eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren euskarako probetan soilik, hain zuzen ere.

Epaimahai Kalifikatzaileak egoki irizten badio, aholkulari adituen lankidetzara eskatu ahal izango du, hainbat proba egiteko.

Epaimahaikideek ezin izango dute parte hartu –eta hala adierazi beharko diote alkate-lehendakariari–, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen denean. Halaber, izangaiek ere atzera bota ahal izango dituzte, Lege bereko 29. artikuluekin bat etorriz.

Epaimahaiaren osaera bat etorriko da indarrean dagoen legediarekin.

Epaimahai Kalifikatzailearen jardura bat etorriko da uneoro Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako kide anitzeko organoei buruzko xedapenekin.

Epaimahaia ezin izango da osatu, eta ezin izango du jardun, baldin eta epaimahaiburua, idazkaria eta



Lezoko Unibertsitateko Udala

gutxienez epaimahaikideen erdia bertaratu ez badira. Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kide guztiek izango dute hitz eta boto eskubidea, idazkaria salbu; honek ez baitu boto eskubiderik izango. Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren kalitatezko botoa izango da erabakigarria.

Epaimahaibururik eta ordezkorik ez badago, kanpoan dagoelako, gaixo dagoelako, edo legezko beste arrazoiren bat duelako, Epaimahaiko kideen artean zaharrenak hartuko du bere lekua.

Idazkaririk eta ordezkorik ez badago, kanpoan dagoelako, gaixo dagoelako, edo legezko beste arrazoiren bat duelako, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak jarduteko askatasun osoa izango du; prozedura legala eta objektiboa dela ziurtatu eta bermatuko du. Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, oinarriak aplikatzearen ondorioz sor litezkeen zalantzak argitu, lehiaketa-oposizioa ondo bideratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta oinarrietan aurreikusten ez diren gorabeherei dagokienez finkatu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Aukeratze prozesuaren edozein unetan Epaimahaiak uste badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, interesatua entzun ondoren, organo eskudunari deialditik kanpo uzteko proposatu eta izangaiaren eskabidean dauden zehaztasun ezak eta gezurrak jakinaraziko dizkio.

Bederatzigarrena: Oposizio fasea.

Ariketa bakoitzeko deialdi bakarra egingo da, Epaimahaiak askatasun osoz aztertutako eta ezinbesteko arrazoi sendoen bidez justifikatutako kasuetan izan ezik.

Oposizio faseak lau (4) ariketa izango ditu, guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailak.

Lehendabiziko ariketa.

Idatziz erantzun beharko zaio galdetegiari epaimahaiak ezarritako denboran. Erantzun alternatiboak emango dira, baina hauetako bat bakarrik izango da zuzena. Galdetegiak zerikusia izango du 1 eranskineko gaitegi orokorrarekin. Epaimahaiak erabakiko du erantzun okerrak penalizatzea edo ez.

Ariketa horri 0tik 25era bitarteko puntuazioa emango zaio, eta baztertu egingo dira gutxienez 12,5 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Bigarren ariketa.

Euskarako 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da Epaimahaiak ezartzen duen eran, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) azterketa hauetarako ezartzen dituen ildoak jarraituta, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1. artikulua.

Proba horiek egitetik salbuetsiak geratzen dira, ariketa hau egingo den eguna eta ordua baino lehen, eskatutako hizkuntza eskakizuna daukatela egiaztatzen duten izangaiak. Horretarako, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeko Dekretua aldatzen duen otsailaren 24ko 64/2008 Dekretuan ezarritako edozein modu balia dezakete. Konbalidatuak geratzen dira bertan aipatzen diren euskarako ziurtagiri eta tituluak.

Euskal Autonomia Elkartearen herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz,



Lezoko Unibertsitateko Udala

lanpostuetarako hautaketetan eta horiek betetzeko prozesuetan derrigorrez gainditu beharreko hizkuntza eskakizuna 4.a denean, izangai batek berak ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri 3. hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, baina deialdi horretako lanpostua betetzeko baino ez da izango.

Euskarako ariketak *Gai* edo *Ez Gai* kalifikazioa izango du.

Bigarren ariketa egiteko ordena aldatu ahal izango da, aukeratze prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak HAEEK deialdi bateratueterako finkatuko duen egutegiaren baitan.

Hirugarren ariketa.

Izangaiak lanpostuaren ezaugarrietara egokitzen diren ikusteko proba.

Ariketa bat edo gehiago egingo dira izangaiak bete beharreko lanpostuaren ezaugarriekiko eta funtzioekiko duten egokitze maila baloratzeko.

a) Gaitasun ariketak: Ahalmen intelektualei buruzko galdera sorta bati erantzun beharko zaio, lanpostuaren funtzioak ondo betetzeko behar den gutxieneko gaitasun intelektuala neurtzeko.

b) Nortasun ariketak eta elkarrizketa pertsonala: Nortasun ariketa bat edo gehiago eta elkarrizketa pertsonala. Izangaia lanposturako egokia den ala ez neurtuko da.

Ariketa horri, gehienez ere, 15 puntuko balorazioa emango zaio; gainditzeko, gutxienez 7,5 puntu atera beharko dira.

Laugarren ariketa.

Kasu praktiko bat edo bat baino gehiago egingo dira, oinarrietako gai zerrenda orokorrean eta espezifikotan aipatzen diren gaiekin zerikusia dutenak (eranskinean daudenak).

Ariketa horri 0tik 60ra bitarteko puntuazioa emango zaio, eta baztertu egingo dira gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Proba guztiak gainditzen dituzten izangaiak lehiaketa fasera igaroko dira.

Hamargarrena: Oposizio fasearen garapena.

Epaimahai Kalifikatzaileak 9. oinarrian zehaztutako proben hurrenkera aldatzea eta proba bat baino gehiago egun berean egitea erabaki ahal izango du. Horrelakoetan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Baldin eta izangairen bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren, aukeratze prozesutik kanpo geratuko da.

Ariketa baztertzaileak amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Lezoko Unibertsitateko Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.lezo.eus) argitaratuko du oposizio fasea gainditu duten izangaien zerrenda.

Halaber, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu oposizio fasearen ariketa idatzien edukia sekretupean gordetzeko eta ariketak izangaien nortasuna jakin gabe zuzenduko direla ahaleginduz.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Proba guztiak gainditzen dituzten izangaiak lehiaketa fasera igaroko dira.

Hamaikagarrena: Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiek lehiaketa fasean hartuko dute parte. Lehiaketa fasean, Epaimahai Kalifikatzaileak ondorengo merezimenduak baloratuko ditu, baldin eta eskabidean arrazoitu eta behar bezala egiaztatu baldin badira, 5. oinarriaren d) atalarekin bat etorritik, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuta:

- a) Herri Administrazioan, arkitekto tekniko lanpostuetan izandako esperientzia. Gehienez ere 7,5 puntu, 0,1 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- b) Arkitekto tekniko lanetan izandako esperientzia, eremu pribatuan. Gehienez ere 5 puntu, 0,05 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- c) Lanpostuarekin zerikusia duten gaietan emandako prestakuntza ikastaroetara joatea edo ikastaroak gainditzea. Gehienez ere 2,5 puntu emango dira. Ikastaro horietakoren batean parte hartutako ordu bakoitzarengatik 0,01 puntu emango dira. Ordu kopura jasotzen ez duten ziurtagiriak ez dira onartuko.

Hamabigarrena: Ariketen kalifikazioa eta gainditutakoen zerrenda.

Izangai bakoitzari dagokion azken kalifikazioa lortzeko eta behin betiko puntuazio hurrenkera zehazteko, batu egingo dira oposizio faseko eta lehiaketa faseko ariketa bakoitzean lortutako puntuak.

Ariketa bakoitzaren kalifikazioak jendaurrean udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jarriko dira.

Hiru laneguneko epea eskainiko da alegazioak egiteko eta erreklamazioak udaleko erregistro orokorrean aurkezteko dira idatziz eta epaimahaiburuari zuzenduta.

Izangaiei artean berdinketa gertatzen bada, emakumeei emango zaie lehentasuna, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.4 artikuluan ezarritakoaren arabera horrela dagokien kategorietan eta lanpostu funtzioaletan.

Berdinketak irauten badu, oposizioaldian punturik gehien lortu duenaren alde erabakiko da. Berdin jarraituz gero, oinarri hauetako 11 a) eta 11 b) ataletan aipatutako lan-esperientziagatik lortutako guztirako puntuei begiratuko zaie.

Epaimahaiak alkateari izendapen proposamena jasotzen duen akta bidaliko dio.

Akta horretan agertuko dira, halaber, ariketa baztertzailer guztiak gainditu dituzten izangaiak, deitutako plaza kopurua baino gehiago izanda ere. Adierazitako puntuazio hurrenkerearen arabera, izangai horiek lan-poltsa bat osatuko dute, 1. oinarriak dioenari jarraiki, aldi baterako premiak betetzeko.

Epaimahaiak, deitutako lanpostua egoki betetzeko izangaiek egindako ariketen maila nahikoa ez dela iritziz gero, deialdia bete gabe geratzen dela erabaki dezake.

Hamahirugarrena: Dokumentazioa aurkeztea.

Proposatutako izangaiek aukeratze prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dituzten agiri originalak aurkeztu beharko dituzte, probak gainditu dituzten izangaiei zerrenda argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita hamar (10) eguneko epearen barruan.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Aipatutako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak salbu, izangaiak agiriak aurkezten ez badituzte edo deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez badute, ezin izango dira praktiketako funtzionario izendatu, eta baliorik gabe geratuko dira haien jarduera guztiak, hasierako eskabidean gezurrak esateagatik izan dezakeen erantzukizuna gorabehera. Horrelakoetan, lehiaketa- oposizioa gainditu dutenen artean behin betiko puntuazio hurrenkeran hurrengo tokian dagoenaren edo daudenen alde egingo da izendapen proposamena, eskatutako baldintza eta betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren. Gauza bera egingo da praktiketako funtzionario izendatutako izangaiak ez badu praktikaldia gainditu.

Hamalaugarrena: Praktiketako funtzionario izendatzea eta praktikaldia.

Organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaia, beti ere aurreko oinarrian adierazitako agiriak aurkeztu ondoren.

Praktika-aldia 9 hilabetekoa izango da.

Praktika-aldia hori amaitu baino lehen, bereziki horretarako eratuko den batzorde bat arduratuko da proposatu den izangaiaren gaitasun eta trebetasunak ebaluatzeaz.

Ebaluazio Batzordea 3 kidez osatua egongo da eta Tokiko Gobernu Batzarrak izendatuko du.

Ebaluazio Batzordeak, egoki deritzon aholkulari teknikoen laguntzaz, praktiketan dagoen funtzionarioak bete behar dituen helburuak ezarriko ditu. Helburu horiek ondoko gaitasun eta trebetasunak ebaluatzerantz bideratuko dira:

- Lana arrazionaltasunez eta eraginkortasunez egituratu eta antolatzea.
- Kanpo eta barruko giza harremanak.
- Jarrera, ekimena eta sormena.
- Lanari buruzko ezagutza praktikoa.
- Efizientzia eta erantzukizuna.

Praktiketako funtzionarioa ebaluatzeko prozedura bat egongo da.

Praktiketako funtzionarioak lanpostua hartu eta gero, hiru hilabeteko bakoitzaren hasieran, hiru hilabeteko horretan bete behar dituen helburuak emango zaizkio jakitera praktiketako funtzionarioari. Jakinarazpen hori bere goragokoak, edota bere gainetik daudenek, luzatuko diote idatziz. Hiru hilabeteko amaitzean bere goragokoak, edota kasua balitz, horren gainetik daudenek, txosten bat egin eta Ebaluazio Batzordearen esku jarriko dute.

Txostena aurkakoa bada, txostenaren berri emango zaio praktiketako funtzionarioari eta aukera izango du helburuak zergatik ez diren bete arrazoitzeko. Jakinarazpenik ez badago, txostena aldekoa dela esan nahi du.

Praktika-aldia bukatzean, praktika-aldi osoari buruz amaierako txosten bat egingo du goragokoak, edota kasua balitz, horren gainetik daudenek, Ebaluazio Batzordeari aurkezteko. Praktiketan dagoen funtzionarioari txostenaren berri emango zaio, eskubidez dagozkion alegazio edo oharra idatz ditzan.

Izangaiak prestakuntza eta praktika-aldia gainditzen ez badu, izendapenak dakartzan eskubide guztiak galdu egingo ditu, horretarako Gobernu Batzordeak hartutako erabaki arrazoituaren bidez.

Hamabosgarrena: Karrerako funtzionario izendatzea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Proposatutako izangaiak prestakuntza aldia gainditzen badu, alkateak karrerako funtzionario izendatuko du. Izendapen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Karrerako funtzionario izendatu duten praktiketako funtzionarioak 10 egun izango ditu kargua hartzeko, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Alkate-lehendakariak, justifikatutako arrazoiak direla medio, beste hamar egunez luzatu ahal izango du aipatutako epea.

Aipatutako epean interesatua ez bada udaletxera joaten karguaz jabetzeko, galdu egingo ditu eskubide guztiak eta ez dute izendatuko karrerako funtzionario.

Hamaseigarrena: Gorabeherak.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmen osoa izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta, Oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabeheretan, lehiaketa-oposizioa ongi bideratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Hamazazpigarrena: Legeria osagarria.

Kontuan izan beharko dira beti ere Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dagoen lege xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua; Funtzio Publikoa birgaitzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; Enplegatu Publikoen oinarritzko Estatutuaren Legea onartzen 5/2015 testu bateratua; Estatuko Administraritzaren Zerbitzu Orokorreko pertsonalaren sarrerako erregelamendu nagusia onartzen duen martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua; urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, eta aplikagarri diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenak.

Hemezortzigarrena: Inpugnazioak.

Interesatuek, deialdiaren, bere oinarrien eta deialdiak berak zein epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen egintza administratiboen aurka jo dezakete, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak finkatutako epe eta moduetan.



Lezoko Unibertsitateko Udala

1. ERANSKINA.

GAI OROKORRAK:

- 1.- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa: Eskubideak eta betebeharrak.
- 2.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutua: Eskumenak, Botereak, Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Lehendakaria.
- 3.- Lurralde historikoak. Arauketa konstituzionala. Lurralde Historikoetako Erakundeak. Lurralde Historikoaren antolaketa eta eskuduntzak.
- 4.- Egintza Administrazioen betekizunak: Produkzioa eta edukia. Motibazioa. Forma. Egintza Administrazioen eraginkortasuna: Betearazigarritasuna, ondorioak, jakinarazpenak eta publikazioak. Egintza Administrazioen deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio prozedura: Hasiera, Antolakuntza, Instrukzioa, Amaiera eta Exekuzioa. Administrazioarekiko errekursoak: Printzipio orokorrak. Administrazioarekiko errekursoak: gorako helegitea, berraztertze helegitea. Administrazioaren isiltasuna.
- 5.- Udalerria: Kontzeptua, Elementu garrantzitsuenak, Biztanleria.
- 6.- Sektore publikoko kontratuak: Esparru subjektiboa, Kontratu motak xedearen arabera. Herri Administrazioetako kontratuak: Esleitzeko prozedurak eta erak. Sektore Publikoko Kontratuak: Toki Administrazioarako xedapen espezifikoak.
- 7.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko legea: Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak.
- 8.- Toki Entitateen Ondasunak: Kontzeptua eta sailkapena.
- 9.- Toki korporazioetako zerbitzuak kudeatzeko erak.
- 10.- Toki Erakundeetako Ordenantzak eta erregelamenduak: Onartzeko prozedurak.
- 11.- Toki Erakundeen aurrekontua: Edukia. Aurrekontuaren egikarritza. Oinarriak. Urteko jarduketako programak eta inbertsio planak. Aurrekontuaren egoera bateratua.
- 12.- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Zioen adierazpena, Atariko titulua eta I. Kapituluak.

GAI ESPEZIFIKOAK:

- 13.- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
 - Herritarraren oinarrizko estatutua. Lurzoruaren jabetzaren estatutu juridikoa. Hirigintza-jarduketaren promozioaren oinarrizko estatutua.
 - Lurzoruaren araubidearen oinarriak.
 - Prozedura-arau komunak eta arau zibilak.
 - Eraikinen Ebaluazio Txostena.
 - Nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna.
 - Balorazioak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Nahitaezko salmenta eta ordezipena.
- Azalera-eskubidea.
- Legearen aurkako jarduketak eta Fiskaltzarekin egiteko jarduketak. Eskariak, egintzak eta erabakiak.
- Xedapen gehigarriak: Landa-lurzoruan errentak kapitalizatzeko arauak. Arau-hausteak eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagirien arloan. Zehapenak eraikinen energia-ziurtagirien arloan eta graduazioa. Eraikinen Ebaluazio Txostena egiteko egutegia. Balorazioak. Gutxieneko iraunkortasun irizpideak.

14.- Autonomia-erkidegoko hirigintzako legedia eta araudia. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

II. Titulua. Lurzoruaen sailkapena, kalifikazioa eta araubidea.

III. Titulua. Hirigintzako Antolamendua eta Plangintza. Hirigintzako antolamendua: Antolamendu estrukturala eta xehatua. Hirigintza antolatzeke planak eta gainerako tresnak. Motak, edukia, tramitazioa eta onarpena.

V. Titulua. Hirigintzako antolamendua egikaritzea. Urbanizatzeko kargak. Urbanizatzeko jarduketa-programa. Partzelak eta orubeak eraikitzea. Beste egikaritze-tresna batzuk. Urbanizatzeko proiektuak eta obra osagarrien proiektuak. Obrak eta eraikinak kontserbatzea. Urbanizazio-lanak. Higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko obrak.

VI. Titulua. Hirigintzako antolamendua bermatzea eta babestea. Printzipio orokorrak. Hirigintzako lizentziak. Hirigintzako ikuskapena. Hirigintza-diziplina. Etxe, eraikin eta instalazioen araubidea eta ezkutuko jarduketak. Hirigintzako antolamendua leheneratzeko ekintzak. Hirigintzako arau hausteak eta zehapenak.

15.- 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa.

16.- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurumena Babestekoa. Lege honen eta Dekretu honen bidez egindako aldaketen arabera: 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa, eta 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

Jarduera sailkatuen tramitazioa. Txostenak, ikuskapena, erregistroa eta segimendua. Jarduera-lizentzia eta aurretiazko komunikazioa behar duten jardueren sailkatuen zerrenda. Jardueren eta obra lizentzien zerrenda.

Jarduera sailkatuen kontrola. Neurri zuzentzaileak. Hutsuneak zuzentzeko prozedura. Zehapen-araubidea.

17.- Jarduera sailkatuei aplikagarri zaizkien Arau Tekniko orokorrak, lehen 171/1985 Dekretua, ekainaren 11koa, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikarri zaizkien arau teknikoak onesten dituena.

18.- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko ikuskizunena eta Jolas Jarduerena. Eraikin eta lokal estaliak. Aldi baterako instalazioak, kirolguneak eta esparruak.

19.- 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.



Lezoko Unibertsitateko Udala

20- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

21.- Lurzoru kutsatuak. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

22.- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

23.- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarena, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

24.- Errepideak. 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duena. Foru titulartasuna duten errepideak Lezon. Babes erregimena eta erabilera eta eraikuntza baldintzak gune mugakideetan.

25.- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa eta arkitektura-oztopoak kentzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, Eusko Jaurlaritzarena, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena:

Hiri-inguruneen irisgarritasun-baldintza teknikoak.

Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak.

Komunikaziorako irisgarritasuna.

Eraberritze, zabalkuntza edo aldaketa lanak urbanizazioetan eta eraikinetan.

26.- 241/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena, Dekretu honen bidez egindako aldaketa barne: 80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

27.- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

28.- 1.627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa: Segurtasun eta osasun baldintza minimoak eraikuntza-lanetan.

29.- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa. Segurtasun eta osasun baldintza minimoak lantokietan.

30.- 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek babes individualerako ekipamenduak erabiltzeari lotutako segurtasun eta osasunerako gutxienezko xedapenak ezartzekoa.

31.- 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun eta osasun seinaleztapenari buruzko gutxienezko xedapenak ezartzen dituena.

32- Eraikigintzaren Kode Teknikoa. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikigintzaren *Kode Teknikoa* onartzen duena. Xedapen orokorrak, baldintza teknikoak eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak. I. Eranskina. Proiektuaren edukia, II. Eranskina. obraren segimenduari buruzko dokumentazioa eta III. Eranskina. Terminologia. [Agiria honakoek aldatu dute: 1675/2008 Errege Dekretuak, urriaren 17koak, 173/2010 Errege Dekretuak, otsailaren 19koak, 410/2010 Errege Dekretuak, martxoaren 31koak, 2010eko maiatzaren 4ko Epaiak eta 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak, hiri bigaitzeari eta berronertze eta berrikuntzari buruzkoak.]



Lezoko Unibertsitateko Udala

DB SI Sute kasuetako Segurtasuna. SUA Erabilera Segurtasuna eta Irisgarritasuna. DB HE Energia aurrezte. DB-SE. Segurtasun estrukturala: Eraikuntzako ekintzak. DB-HS Osasungarritasuna. DB-HR. Zaratzen kontrako babesa

33.- Kalitatea eraikuntzan. Araudia. Lanen ikuskerak eta kalitate-kontrola. Kontrol-teoria. Beharrezkoak eta gomendagarriak diren kontrolak. Laborategiak, entseguak. Kalitate-ziurtagiriak, homologazioak.

34.- 1.027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa. Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia (EITA).

35.- 1.942/1993 Errege Dekretua: Suten kontrako babes-instalazioen Araudia. 1998ko apirilaren 16ko Agindua, 1.942/1993 Errege Dekretuaren prozeduraren eta garapenaren arauari buruzkoa.

36.- 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun Araudia onartzen duena (Estatuko Aldizkari Ofiziala 04-12-17). I. Kapituluak. II. Kapituluak. III. Kapituluak. 1. Eranskina. 2. Eranskina. 3. Eranskina.

37.-Gas instalazioak eraikinetan. Araudia.

38.-Barneko ur-instalazioak. Araudia.

39.-Telekomunikazioak eraikuntzan. Araudia.

40.- Tentsio Baxurako Araudi Elektroteknikoa. 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa.

41.- Garraio-instalazioak. Igogailuak. Instalazio Proiekturako arauak. Jasogailuen araudia.

42.- Petrolio-gas likidotua biltegitratzea. Araudia.

43.- Eraikinen mantentze eta birgaitze lanak. Mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak. Mantentze-eskuliburua. Lan eta maiztasun arruntak. Mantentze-programa informatikoak. Fatxadak, estalkiak, instalazioak, estaldurak, etab. Helburuak, antolamendua.

44.- Hiriko mantentze-lanak: Hiri-altzariak, haur jokoak, zoladurak, etab. Helburuak, antolamendua.

45.- Obra proiektuak idaztea. Administrazio-izapideak egitea. Modalitateak, faseak, dokumentazioa eta onarpena. Helburua eta edukia. Klausula administratiboak eta baldintza teknikoak agiriak. Neurketak eta aurrekontuak: Programa eta edukia. Neurketa-irizpideak. Prezioen azterketa. Prezioen modalitateak. Prezio unitarioak. Prezio osagarriak. Kostu zuzenak eta zeharkakoak. Egikaritze materialerako aurrekontua eta kontrataren aurrekontua.

46.- Obra zuzendaritza. Zuzendaritzan esku hartzen duten eragileen egitekoak. Zuzendaritzaren aginduak. Gorabeherak. Funtzioak, erantzukizuna eta eskumenak dagozkien arautegi profesionalen arabera. Sokak jartzea eta lanen zuzendaritza. Prezioak berrikustea. Lagapenak, azpikontratuak eta urterokoak egokitzea, aldatzea. Egiten ari den obra ordaintzea. Obra ziurtagiriak, motak. Berrikusketa ziurtagiriak. Luzapenak, berandutzeak, zigorrak. Obraren amaiera eta harrera. Berme-epea. Likidazioa.

47.- Eraispinak: sailkapena, egikaritzea. Kontrola eta neurketa. Eraispinak eta eraispinen segurtasuna.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Baldintza Agiriaren edukia. Eraispen-proiektuaren teknikak. Eraispenaren aurretik, eraispenak irauten duen bitartean eta eraispenaren ondoren hartu beharreko neurriak. Taldeko eta banako babesak.

48.- Hormigoia: orokortasunak. Egiturazko hormigoia jarrabideak (E.H.E.). Hormigo-motak. Osagaiak. Fabrikazioa eta obran jartzea. Kontrola eta neurketa. Zuzeneko eta zeharkako zimenduak. Pantailak: sailkapena, lanak egitea, kontrola eta neurketa. Hormigoizko egiturak. Materialak eta lanak egitea. Aplikazioak eraikinen berriztapen eta birgaitze lanetan.

49.- Hiri-zolatzeak. Motak. Kalitateak. Kalkuluak. Aukeratzeko irizpideak. Galtzadak, espaloiak eta araudia.

50.- Errepideak. Errepide-zoruak. Materialak eta obra unitateak. Eraikuntza berriko bide-zoruak. Proiektu-oinarriak. Bide-zoruak sendotzea eta birgaitzea. Auskultazio-metodoak. Azaleraren eta egituraren ezaugarriak. Sendotzeko eta zuzentzeko metodoak. Errepideak zaintzea. Zaintzeko metodoak eta antolakuntza. Neguko bideak. Zaintzea, makinak eta materialak.

51.- Saneamendu-sareak. Egitura. Ezaugarriak eta eginkizun garrantzitsuenak Sistemak. Sare motak. Hodi biltzaileak, Hodiak, Junturak, Erregistroak eta gailu osagarriak Erregistro-putzuak eta motak, hustubideak. Erregistro edo garbiketa ganberak. Sifoiak. Aringarriak, funtzioak eta motak. Hiriko ur beltzen emaria, kalkulua eta hornidura. Saneamendu-hoditeria motak. Hondakin-urak arazteko teknikak. Ur beltzen arazketa. Autoarazketa naturala. Arazketa artifiziala, metodoak, kalitate-parametroak.

Emarien kalkulua. Infiltrazioa. Hidrologia. Euri-uren hodi biltzaile baten dimentsionamendua eta trazatua. Sareen zainketa. Garbiketa, ikuskaritza, konpontzeko eta berritzeko lanak.

52.- Edateko uraren banaketa-sarea. Hodi motak. Junturak eta gailu osagarriak. Kalkulua eta hornidura. Sareen sektorizazioa eta ihesak detektatzeko sistemak. Edateko ura biltegitratzea: edateko ura arazteko tratamenduak. Urrutiko kontrol-sistemak eta automatismoak.

53. Hodiak. Hodi malguak. Materialak. Egituraren diseinua. Araudia. Egitea eta probak. Hodiak zangan. Hondeaketak eskora-oholtzarekin. Eskoramenduak. Hormigo armatuzko hodiak. Hodien ezaugarriak. Egituraren diseinua. Aplikatzeko arauak. Hormigoizko hodien korrosioa.

54.- Argiteria publikoa. Teknikak. Araudia. Luminariak. Diseinu-irizpideak. Parametro desberdinen balio ohikoenak. Argi-puntuak jartzea: Irtenbide posibleak. Kalkulu fotoelektrikoak. Kanpo argiztapena kalkulatzeko metodo desberdinak, puntuz puntukoak, gutxi gorabeherako metodoak, kalkulu numerikoa ordenagailu bidez, etab. Multzo optikoen diseinua. Motak eta doikuntza. Argiak aukeratzeko. kontaktu elektrikoaren aurkako babes-maila. Hermetikotasuna. Osagaiak. Eroaleak: Argiteria publikoan erabilitako mota desberdinen ezaugarriak eta propietateak, abantailak eta eragozpenak. Pizteko sistemak. Erloju-etengailuak. Programatzaile astronomikoak. Maniobratzeko eta babesteko erabiltzen diren materialak. Fluxu-murrizketa sistema desberdinak energia aurrezteko. Oinarrizko kontzeptuak: Balioak hasieran eta murrizketan Argiteria publikoaren tarifak: Deskribapena, osatzen dituzten terminoak. Errekarguak. Tarifa egokia aukeratzeko (adibideak jarri). Potentzia-faktorea zuzentzea (adibidea). Energia-eraginkortasunaren faktoreak argiteria publikoan. Argi-eraginkortasuna. Galera elektrikoak. Jarduteko metodologia.

55.- Hiria lorategiz hornitzea. Parkeak. Plazak eta bideak. Pergolak, mahats-parrak eta estalpeak. Jokoak. Animaliak.

56.- Lurren mugimenduak eta eskoramenduak: sailkapena, lanak egitea, kontrola eta neurketa.



Lezoko Unibertsitateko Udala

57.- Sistema informatikoak, ofimatika, telefaxa, ordenagailuak-terminalak. Transmisio-sistemak. Ordenagailuz lagundutako marrazketa programen (Autocad) eta Informazio Geografikoko sistemen ezagutza aurreratuak (Autodesk Map).

58.- Lezoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra

Hirigintzako erabilerak.

Eraikigarritasun fisikoaren eta urbanistikoaren zehaztapenak.

Erabilera xehatuko azpiguineen eraikuntzako, erabilerako eta jabariko araubide orokorra.

Urbanizazioa gauzatzea.

Eraikuntza gauzatzea.

Hirigintza-lizentzien araubidea.

Lur-zati eraikigarrien eraikitze eta erabiltzeko ordenantza arautzaileak. Bizigarritasun-baldintzak babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzen arabera. 2009ko otsailaren 12ko AGINDUA, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Diseinurako Ordenantzak onartzen dituena.

Urbanizazioaren eta azpiegituren diseinuari, eraikuntza kalitateari eta zerbitzu mailari buruzko araudia.

Ingurumena babesteari buruzko arau orokorrak.

59.- Lezoko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. Ordenantza orokorrak. Birgaitzeko esku-hartzeak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I., III. eta IV. Eranskinen arabera.

60.- Lezoko udal ordenantzak: Bizileku erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzea. Lan txikiak. Hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa. Udal Lizentziak. Ibiak. Lezoko Baratze Ekologikoak esleitzeko eta gestionatzeko araudia. Lezoko Hiri Hondakinak jasotzea eta biltzea. Uraren kudeaketa arautzen duen udal araudia. Salmenta ibiltaria. Terrazak eta mahaiak kalean jartzea. Lezoko udal hilerriaren erregimen eta funtzionamendua arautzeko ordenantza. Gazteen lokalak.

Oposaketa faseko ariketak egiteko finkatu den datan hauetako araudiren bat aldatu baldin bada, epaimahaiak ariketa egiteko erabiliko den araudia zein izango den adieraziko du.



Lezoko Unibertsitateko Udala

2 ERANSKINA / ANEXO 2

LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE LA UNIVERSIDADE LEZO

DEIALDI PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO ESKAERA / SOLICITUD PARA PARTICIPACION EN CONVOCATORIA PUBLICA

Lanpostu honetara aurkezten da / Se presenta a la siguiente plaza

1.- NORTASUN DATUAK / DATOS PERSONALES

Lehen abizena / Primer apellido	Bigarren abizena / Segundo apellido	Izena / Nombre
NAN / DNI	Jaiotze-data / Fecha de nacimiento	Telefonoa
Helbide elektronikoa/Correo electrónico		
Helbidea / Domicilio	Herria-Herrialdea / Población-Provincia	PK / CP

2.- HEZKUNTZA / FORMACIÓN

Deialdian eskatutako titulu akademikoa / Título académico exigido en la convocatoria

Titulua	Zentroa eta herria / Centro y población	Data / Fecha
---------	---	--------------

3.- ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA

Herri Administrazioan edo enpresa pribatuan (merituen baloraziorako)

En la Administración Pública o en empresa privada (para la valoración de méritos)

Sarrera data Fecha ingreso	Irteera data Fecha baja	Administrazioaren edo enpresaren izena Nombre de la Administración o empresa	Izandako lanpostua Puesto que ocupó



Lezoko Unibertsitateko Udala

4.- BESTE TITULU EDO IKASKETAK / OTROS TÍTULOS O ESTUDIOS

Merituen baloraziorako datuak (Beste titulu, ikastaro, eta abar...)

Datos para la valoración de méritos (Otros títulos, cursos, etc...)

Tituluak edo ikastaroak / Títulos o cursos	Iraupena: orduak Duración: horas

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:
DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN A ESTA SOLICITUD:

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
Fotocopia del Documento de Identidad.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
Fotocopia compulsada del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Hizkuntz eskakizunaren egiaztagiri originala edo fotokopia konpultsatua.
Documento acreditativo original o fotocopia compulsada del Perfil Lingüístico.
- Gida-baimenaren fotokopia.
Fotocopia del permiso de conducir.

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagozkion aukeratze-probetan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

El/La abajo firmante SOLICITA ser aceptad@ en las pruebas de selección correspondientes a la presente instancia y DECLARA que los datos que hace constar en la misma son verídicos y que cumple todas las condiciones especificadas en las bases, así como que, cuando le sea solicitado, presentará las correspondientes documentaciones originales.

Tokia eta data:
Lugar y fecha:

Sinadura / Firma

LEZOKO UDALEKO ALKATE - LEHENDAKARIA/ ALCALDE - PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO